

Cohn Bendit eta Waldeck Rochet

Frantzia'ko gertaerak alderdi askotatik azter dezke. Maiatzako erreboluzioaz luzaro hitzegingo eta idatziko da, ez da zalantzarik: liburuak agertzen baskiak dira hain zuzen (Servan Schreiber, Mendes France, Sauvageot-Cohn Bendit), eta anitz agertuko da ondoko hilla-beteetan.

Artikulu hau idazten dudan uanean, Garagarillaren 23-ko hauteskundeak ez da oraindik hasi. Ez dakit, beraz, zein izango dan ondorioa, eta deputatuak nola gertatuko diran; baiña ba liteke De Gaulle'k irabaztea.

Dana dala, Maiatzan izan zan erreboluzio-giroa itzaldu egin da; eta gauzak zertaratuko diran ez badakigu ere, orain arte ikusi duguna bederen azter ditek.

De Gaulle Frantzia'ko Komunistak Alderdiak salbatu du. Hauxe da nekez uka ditek. «Henturakeria» ren bildurra izan omen da komunisten errexeloaren kaxoa; baiñan arazoain hau komunistek ez bestek eman dute. Ba dirudi beren burua garbitzeko aitzekia huts bat izan dala.

ernahi esanik ere Komunistak Alderdiak kapitalismoaren sistema onartu du; eta huntan «sozial-demokrazia» ren bide beretik abiatu da. Mao-zaleek, trotskistek, eta Herbert Marcuse'k gauza bera zioten huntaz aspaldidanik; eta iritzi hori ez zen garbi agertzen. Gaur, Frantzia'ko gertaeren ondoren, zalantzarik ez dago: Komunistak Alderdiak ez du Frantzia'n erreboluzioa nahi. Ez omen dago hortarako girorik; baiña gauza bera esan zioten Mao'ri eta Castro'ri. Erreboluzioaren bildur da, edozein eskuindar bezelaxe.

Ba du, hau bai, eskolastika bat; eta ba ditu bere santuak eta bere eliza. Baiña besterik ez. Nahiago du De Gaulle nagusi ikusi, menperaturik ez dituen intelektuak nagusitzea baiño. Hasieratik beretik bota ditu madarikazio guziak Cohn Bendit eta gaiñerako «ezkerkoi» («gauchistes») guzien kontra. Azkeneko astean P. S. U.'ren kontra ixuri du behazun guzia. Maiatzan, beroaidiaren gorenean, komunistek hetxi dizkiete lantegiko ateak billa etorritako ezkeriar ikasleei, gerta zitezkean «salsen» bildur! Billancourt'eko gertaera hunek garrantzi izugarria du: garbi erakutsi du marxismo ortodoxoaren ipuinkeria, kapitalismoa aurreratu ala ez baita langillaria erreboluzioa nahi duena, Unibertsidadea eta zapalduko ethniak baizik.

Cohn Bendit'ek, Sauvageot'ek eta Geismar'ek erreboluzioa aipatu duten momentuan, Waldeck Rochet eta Séguy komunistek soldaten emendatu-beharrak aipatu dute. Ikasleek egoerari «ez» esan diotenean, Komunistak Alderdiak «bai» esan du: «soziedade-mota hau ongi da, baiña parte haundiagoa nahi dugu»...

Harrigarriena Waldeck Rochet'en

esatera izan da halere: «Le parti communiste est un parti d'ordre». Zein ordenatuko? Burgesiaren desordenua, beraz, ordenua da? Eta ordenu-partidua izan ditek kapitalismo batean?

Ez da hau Frantzia'n bakarrik gertatu. Italia'ko komunistak illunpe batean daude. Huntaz beste batean mintzatuko naiz.

Eskolastika bat agertu da gertaeren kontra! Horrela De Gaulle'k hamaika ezkeriar erakunde desegin dituenean, Komunistak Alderdiak ez du ezer esan erabakiaren kontra: gaullistak eta komunistak ixildu dira! Mitterrand, Mendes France, Daniel Mayer, Rocard, entzun ditugu, zanpatutako gogaide ez izanik ere. Wilson'en beraren ehun deputaturen protestazioa heldu da Bretona Nagusitik. Sartre'k eta Kastler'ek, bi Nobel-Sarik beraz, Batzorde bat sortu dute erabakien kontra burrutzeko. Waldeck Rochet ixildu egin da, ezkeriar horiek ez baitira bere elizkideak... «Sozialismoa Komunistak Alderdiak ekar dezake eta beste inork ez»... Omen!

Partidu bakar batek erakutsi du Frantzia'n gertaeren mailan egon ditekalea: P. S. U. dalakoa; eta politikari bakar bat gaillendu da, egoe-

ra berriaren ulertzaille: Mendes France.

Gaiñerakoak? Ez dira oharu ere sozialismoak galdu duen aukera ederraz; eta ez bide dira iñoz ohar-tuko.

LARRESORO

ABESTI BARRIAK

DELILAH

Egilleak: Reed eta Mason

Euskal itzak: Xabier Gereño

Biotza triste neukan orain di-
[ra egunak
Munduan uts asko zirala na-
[baitzean,

Deadar egin gura
Baña sentitzen nintzan triste
[bakartadean.

Baña emen dator
Udabarria
Eta orain daukat esperantza,
Bai, esperantza etorreran.



ANTIMITOIA MITO BIURTZEN DANEAN

Aspaldi xamar ontan mitoa dala eta ez dala zenbat esakera parregarri entzun ditugu eta zenbait itz parragarriok irakurri.

Gaurko zenbait idazle gazteek egun batetik bestera mundua aldatu nai dizute, alkandoraz aldatu bezin errex ba-litzake bezela. Beren gustokoa ez dan guzia txarra eta madarikatu dute, ete bere gustokoa berriz gauzarik onen-ona; eta ez zaitezela zalantzan jarri bestela kapitalista, traideretik gora tratatuko zaitue.

Zirt edo zart, ukatze nai orretan sakratuena dan gauza ere mito bat dala esango dizute. Eta ala, bere komentzian gauz asko ez dabiltzalako, mitoa andik eta mitoa emendik goizeko kafesnean ere sartuko dizute, eta mitoz egindako kollare azunena leporatuko digute.

Baiñan munduak asko korritzen du, eta gertaerak geiago. Eta alaxen, gauz asko irakurtzen ditugu eta ixildu ere bai. Eta ixil-ixilik gozotasun ederrik nabaitzen ditugu, gertaera azkar oiek bide dirala zenbait idazleek egin bear izaten dituzten kabriolak eta txiribiroekin, komeriek.

Egia da, demokraziaren gaitz bere gorroto diximulatuena askotan nai ez da ere nabarmen azaltzen dizutela. Auxe egiztatzeko, idazie batzuen idazkiak artu eta berritoki irakurtzea bezelakorik ez. Oso interesantea gusa! Demokrazia mito bat omen da, gezur utsa. Ez dago libertaderik, bada tiroz erailtzen omen dituzte politikak eta abar. Baiñan ez dizute sakonduko gertaeretan, komeni ez zailako, noski, eta aitortu egizko demokratik ekintz oietara ez duala iritzi bear bere ideak aurrera ateratzeko, eta demokrazia batean eraille diran oiek politikko bat itztean, beraxe ilik bidebatez demokraziaren izen ona il nai dutela, beti-beti eraille eude indar eta diktadurazaleak diralako, edo beren morroi. Demokraziak ematen duan libertadeaz aprobetxatzen dirala indarkeriz libertade-eza duan diktadura latz bat ipintzeko.

Mito bat da ere «prensa libre», prensa ori kapitalista batzuek mane-jatzen dutelako. Diktadurapean prensaren jabe gizon bakarra da. Prensa bakarra ematen dizu. Baiñan idazleok ez dizute argituko «prensa libre» ori bizi dan madari-kaziozko errietan komunistak, sozialistak, esker eta eskubi-

arren edozein prensa ateratzen dala eta zure esku dezula egokiena deritzaizuna erosteko. Bere akatsak onek ba-ditu, konforme. Baiñan akats txiki auetaz sortutako antimitoaz mito aundiago asmatzen dizute, gizon baten indarkeriz ateratzen duten prensa santuztat eman nairik. Auxen da bada inoren begietako makarra ikusi eta bere begietan daukan enborra ez ikusi naia.

Beste mito bat: «parlamentuak ez du sentidorik sozialismo batean ez ba-da». Ez geiago eta ez gutxiago. Esan zezakean: «Ez dakit Aristoteles'ek esan zuan, baiñan nik esan det eta kito!».

Parlamentuak beti du sentidorik erriak aukeratu eta borondate onez joaten ba-da, au da, errespetoz eta alkar aditzera joaten ba-da, kolokioa, kolaborazioa, koexistentzia eta mayoriak artutako erabakiak eriraren gogoa, erri geienaren gogoa bezela aitortu eta errespetatzen da-du.

Ez du sentidorik, aiatu ditugun erailleen pistolaren tokian guante txurien parlamentu ori desakreditatu eta erailtzea joaten ba-da indarzialea eta diktadurazalea.


Eta sentidu gutxiago du oraindik, beatz aukeratutako parlamentarizat osatutako parlamentua baldin ba-da. Eta dirudinez askok auxe nai dute. Ez baldin ba-dute nai kapitalistaren mundua, ez eta ere irugarren mundua, zein munduarekin gelditzen dira? Komunistoarenekin noski. Ez bai-dute ontzat artzen munduan sozialistak agindu edo mayorian dauden parlamentuak, garai bakoitzeko Stalin diktadore «sozialista» (?) bakoitzeko beatz aukeratutako parlamentua nai dutela agirian dago. Lerdoa izan bear du batek ori ez ikusteko.

Nik dana admetitzen det. Ideal bategatik espionajea eta azpilena egitea ere. Baita nai baldin ba-du «santu guzitarra» izatea ere. Ez zaitena ain ondo iduritzen, etikaz eta idea-zintzatasunez, egiaentzat bear duan edozein idazleak, egi batzuek ixilduaz antimitoaren mitoa orren itxuragabe zabaltea.

«UXOLA»



“SERAPIÑ”



(La Vie Catholique tik)

Azteazkenero, gabeko amaietan, SER katearen bidez eta beste España'ko irratsaio batzuen bitartez

Coca Cola'k eskeintzen dizuen irrati-aldia